



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko apirilaren 29a

41 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako osasun eskualdeei buruzko azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legea aldatzekoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen fondoan kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzekoa. Tramitera ez onartua (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren lehendakaritzak hartutako erabakia, Itoizko urtegiko larrialdien planari buruz informatzeko ez agertzekoa, arbuiatzen da, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eguzki energia fotovoltaikoa hedatzeko berariazko plan bat presta dezan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Orkoiengo TRW enpresari emandako dirulaguntzei buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina (7. or.).
- Galdera, Toki Itunetarako Departamentuarterko Batzordeari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aranaz Echarri jaunak egina (7. or.).
- Galdera, udal zerbitzuak bateratzeareu buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aranaz Echarri jaunak egina (8. or.).
- Galdera, udal batzuetako idazkarien bitartekotasunari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aranaz Echarri jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Toki Administrazioiko Departamentuko Hiru Urteko Planaren barnean emandako presako dirulaguntzei buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aranaz Echarri jaunak egina (9. or.).

- Galdera, Culturax Millenium Fundazioa udako ikastaroak antolatzeko hautatu izanari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egin (10. or.).
- Galdera, aurten eskainiko diren udako ikastaroari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egin (10. or.).
- Galdera, sare publikoko eta hitzartuko irakasleen ordutegiari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egin (11. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan A mailako lanpostuak betetzeko “merezimendu-lehiaketa” erabiltzeari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egin (11. or.).
- Galdera, Gizarte Segurantzako Osasun Ikerketarako Funtseko beka emateari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egin (12. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko irakaskuntza-unitateek programaturiko ikastaroari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egin (13. or.).
- Galdera, Sanduzelain eta Arrotxapean eraikitako BOEen adjudikaziorako aurkezturiko eskariei buruzkoa, Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, espetxeen arloko politikaren funtsezko irizpideak ezarriko dituen eztabaida publikoari buruzkoa, Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Compañía Tecnológica de Corella-Construcción, SA enpresari emaniko laguntzei buruzkoa, Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, irrati-difusioaren emisoreen adjudikazioen egungo titularrei buruzkoa, Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Felipe Borboikoak Nafarroara eginiko bisitaren kostu ekonomikoari buruzkoa, Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako osasun eskualdeei buruzko azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako osasun eskualdeei buruzko azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Nafarroako osasun eskualdeei buruzko azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako osasun eskualdeei buruzko azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

22/1985 Foru Legearen zioen azalpenak ezarri zuen osasun Eskualde oinarrizkoa dela oinarrizko osasun laguntzarako lurralde esparru egokiena, biltzen dituen ezaugarriek –alegia, homogeneitatea, eskuragarritasuna eta mugaketa geografikoarena– osasun laguntza egokia ahalbidetzen dutelako; halaber zehazten du eskualde oinarrizkoaren barrenean osasun etxea izanen dela zuzendaritzaz, koordinazioaz, programazioaz, ebaluazioaz, irakaskuntzaz eta ikerketaz ardu-

ratuko den egitura fisiko eta funtzionala, eta haren kargu egonen dira baliabide bereziak eta herritarrek parte hartzen duten jarduerak ere.

Nafarroako herriren batean gertatu den hazkunde demografikoak akatsak eragin ditu osasun zerbitzuaren arloan. Horrexegatik da beharrezkoa eskualdeen antolaketa modu egokian berraztertzea, berariazkoagoa eta toki batzuetako errealitate demografikoarekiko egokiagoa izanen den plangintza egiteko, horrek osasun laguntza hobia, herritarren beharrekin bat datorrena, ekar dezan.

Lege proposamenak bi norabide ditu: lehenak, baldintza demografikoetan oinarriturik, Nafarroako osasun Eskualdeetako banaketa berraztertu eta beste irizpide batzuk –populazioari, eskuragarritasunari eta laguntzarako baliabideen arrazionalizazioari erantzunen dietenak– kontuan hartu beharra dakar. Helburua da osasun eskualde berri bat sortu eta bertan kokatzea osasun etxe bat, proposaturiko eskualderako beharrezkoa den osasun laguntza integrala eskaintzeko giza baliabideak eta bitarteko teknikoak izanen dituen.

Bigarrenak zerikusia dauka oinarrizko osasun laguntzako taldeetako langileen plantillekin, eta zenbait elkarte profesionalen gomendioei erantzuten die, osasun laguntzak kalitate hobia izan dezan lortzeko, baliabide mugak baino herritarren beharrak gogoan harturik. Populazioaren galdakizun berriak direla-eta, behar-beharrezkoa da lege honek bere baitan hartzen zituen egiturak, eta horregatik aurkeztu du Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak lege proposamen hau.

1. artikulua. Foru Komunitateko osasun arloko lurralde antolamendua arautu eta hura osasun eskualde oinarrizkotan egituratzen duen Foru Legearen 1. artikulua aldatzea.

Hauexek dira proposaturiko aldaketak:

- ARROTXAPEA-ANTSOAIN dioen tokian ARROTXAPEA esan beharko du. Iruñeko Udalerriko VII. Eskualdeko 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 15, 16, 18 eta 19 atalak hartzen ditu.

- Eskualde oinarrizko gisa ANTSOAIN sartzea, Antsoaingo Udalerria hartuko duena.

2. artikulua. Hirugarren xedapen gehigarria aldatzea.

Proposatzen den aldaketa:

Oinarrizko Osasun Laguntzako taldeen plantilla irizpide hauen arabera finkatuko da:

a) Oinarrizko Osasun Laguntzako sendagile bakoitzari atxikitako populazio 1.000tik 1.400 biztanlera bitartekoa izanen da, gehienez ere 1.400 pertsona.

b) Oinarrizko Osasun Laguntzako OLT bakoitzari atxikitako populazio 1.000tik 1.400 biztanlera bitartekoa izanen da, gehienez ere 1400 pertsona.

c) Puntuaren amaieran honakoa gehitzea: "Pediatria bakoitzari atxikitako populazioa 500etik

800 biztanlera bitartekoa izanen da, gehienez ere 800 haur."

d) Gizarte langile bakoitzari atxikitako populazioa 3.500etik 7.000ra bitartekoa izanen da, 7.000 pertsona gehienez.

Puntu berri hau gehitu zaio: oro har, gaixo bakoitzeko 10 minutuko kontsulta ezarriko da.

Puntu berria gehitu da: populazioaren premiei eta eskaerei erantzunez, osasun etxe guztiak arratsaldez irekitzeko ahalegina eginen da, oinarrizko osasun laguntza emateko.

Azken xedapenak

Lehena. Ahalmena ematen zaio gobernuari lege hau betearazi eta garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen fondoen kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzekoa

TRAMITERA EZ ONARTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Foru Komunitatearen fondoen kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu zuen.

Nafarroako Gobernuak 2002ko apirilaren 15ean hartutako erabaki batean, aipatu foru lege proposamena tramitatzearekin ados ez dagoela

adierazten du, aurrekontuko kredituen gehikuntza suposatzen duelako. Erregelamenduko 145.3. artikuluekin bat, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Foru Komunitatearen fondoen kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzeko Foru Lege proposamena ez tramitatzea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2002ko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren lehendakari-ritzak hartutako erabakia, Itoizko urtegiko larrialdien planari buruz informatzeko ez agertzekoa, arbuiatzen da

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren lehendakari-ritzak hartutako erabakia, Itoizko urtegiko larrialdien planari buruz informatzeko ez agertzekoa, arbuiatzen da”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Herrilan eta Azpiegitura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du dagokion batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Itoizko urtegiaren segurtasunaren inguruko eztabaida, eztabaida politikoa izan da azken hila-bete hauetan Biltzar honetan, hala eta kezka soziala eragin duen gaia ere, nola Nafarroako biztanleengan, oro har, bai proiektuak ukitutako herrietan, zehazkiago. Nafarroako Parlamentuan hainbat ekimen gauzatzen joan dira: mozioak, agerraldiak, galderak, informazio eskeak etab.

Ekimen horien artean bazen eskaera bat Ebroko Konfederazio Hidrografikoak agerraldia egiteko, Parlamentuko talde guztiei Itoizko urtegiaren larrialdi plana azal ziezaien. Interes berezia zegoen balizko hondamendien inguruko informazioa ezagutzeko,

bai eta aurreneurriak eta horrelakorik gertatuz gero aurreikusirik dauden ebakuzio sistemak ere.

Halere, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren lehendakariak, 2002ko apirilaren 12an Nafarroako Parlamentura igorritako fax baten bidez, uko egin zion Biltzarrak eginiko gonbitari. Konfederazioak eskubide osoa du etortzeari uko egiteko baina, egia esanik, hala egiteak ez du batere laguntzen gai hau inguratzen duten ilunpeak eta zalantzak argitzeko, horri gehitu behar baitaio ez duela planaren kopiarik ere helarazi Nafarroako Parlamentura. Aipatutakoa are larriagoa da pentsatzen badugu gai honek eragina duela milaka pertsonaren segurtasunean, eta gizartean dagoen kezka areagotu besterik ez duela egiten.

Esanguratsua da, bestalde, agerian gelditzea Nafarroako Parlamentuak ez duela ahalmenik erabakiak hartzeko, ezta hitz egiteko ere, Nafarroako natur baliabideen kudeaketaren eta horren inguruko proiektuen arloan –urari dagokionez, esate baterako– ez ezik, milaka nafar ukitzen duen lan honen segurtasunaren beraren arloan ere.

Azkenik, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak Nafarroako Parlamentuarekin lan bilera egiteari uko egitean izan duen jarrera salatzeke modukoa iruditzen zaigu, kontuan harturik administrazio publikoen arteko harremanetan lankidetzak izan behar duela nagusi eta hala dagoela ezarririk legetan, gainera.

Horregatik guztiagatik:

1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren lehendakari-ritzak hartutako erabakia, Itoizko Urtegiko Larrialdi Plana ezagutzeko Biltzarrak luzatu zion gonbitari uko egin baitzion.

Iruñean, 2002ko apirilaren 18an

Eleduna: Joxé Pernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eguzki energia fotovoltaikoa hedatzeko berariazko plan bat presta dezan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eguzki energia fotovoltaikoa hedatzeko berariazko plan bat presta dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoen menpeko zentroetan eguzki energia fotovoltaikoa hedatzeko berariazko plan bat presta dezan eskatzen duen mozioa.

Proposamenaren arrazoiak:

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen iritziz, Nafarroako Gobernuak

ez du, energia garbi eta berriztagarrien arloan, ezer berririk ekarriko duen ekimenik bat ere. Horrek eragin lezake ahitzekotan egotea 80ko urteetan, gure erkidegoan, gobernu sozialisten garaien energia mota horri emaniko bultzada eta indarra gehiegi bideratzea energia eolikora.

Gure taldeak duen kezka horrek eguzki energia fotovoltaikoa gure erkidegoan hedatu eta sendotzearen arloan hainbat proposamen egitera garamatza, gure ustez energia alternatibo honen garapenak orain arte izan duena eta "Nafarroako Energia Planak" ematen diona baino garrantzi handiagoa izan behar duelako.

Hori dela eta, Parlamentuko Osoko Bilkurari proposatzen zaio honako erabaki proposamen hau onestea:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduketa programa berariazkoa egin dezan Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoen menpeko zentroetan eguzki energia fotovoltaikoa hedatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 1997ko ekainean sortutako "Greenpeace erakundearen eguzki eskolen sarea" izenekoarekin hitzarmen bat egin dezan, gure ustez beharrezkoa delako eguzki energia fotovoltaikoa hedatu eta sendotzeko, baita ikaste-txeetarako dakartzan onura ekonomikoengatik eta energia iturri alternatibo horretatik heldu diren balore pedagogikoengatik ere.

Iruñean, 2002ko apirilaren 18an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

F saila:
GALDERAK

Galdera, Orkoiengo TRW enpresari emandako dirulaguntzei buruzkoa*FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 22an egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Orkoiengo TRW enpresari emandako dirulaguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Askotarikoa Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak, Bil-

tzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galderak erantzutea eskatzen du:

1. Zein dirulaguntza edo bestelako laguntza mota eman dio Nafarroako Gobernuak TRW enpresari? Onartutakoak zehazteko eskatzen dugu, emanik dauden ala ez eta bakarren bat emateko dagoen zehazturik, bai eta kontzeptua, zenbatekoa eta eguna.

2. Zein baldintza bete beharra zegoen laguntza ofizial horiek jasotzeko?

3. Noraino bete ditu enpresak baldintza horiek?

Iruñean, 2002ko apirilaren 12an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Galdera, Toki Itunetarako Departamentuartereko Batzordeari buruzkoa*FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a ARANAZ ECHARRI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 22an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aranz Echarri jaunak Toki Itunetarako Departamentuartereko Batzordeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aranz Echarri jaunak, Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoak xedatuaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Toki Administrazioako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

2000ko irailaren 4an onetsi zen "Nafarroako toki itunei buruzko departamentu arteko batzor-

dea" sortzea, Toki Administrazioako kontseilaria lehendakari izan behar zuena.

2001eko uztailaren 16an eginiko beste galdera bati emandako erantzunean adierazten zen, besteak beste, berehalakoan eskualdatu daitezken eskumen zehatzak ez zeudela artean erabat hautaturik, ez eta zehazturik ere haien kostua eta finantziazioa, baina horretarako lanak hasirik zeudela.

Nola daude batzorde horren lanak?

Zein dira emaitza zehatzak toki enteei eskualdatu beharreko balizko eskumenei, haien kostuari eta izan lezaketen finantziarioari dagokienez?

Iruñean, 2002ko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: Jose M^a Aranaz Echarri

Galdera, udal zerbitzuak bateratzearu buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a ARANAZ ECHARRI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 22an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aranaz Echarri jaunak udal zerbitzuak bateratzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aranaz Echarri jaunak, Biltzarreko Erregelamenduen 184. artikulua eta hurrengoak xedatuaren

babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Toki Administrazioako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Gobernua udalen arteko zerbitzu elkarteak sustatzen ari da.

Zein dira gobernuaren planak, 2002. urterako, zerbitzuak elkartzearen inguruan?

Zenbat udalengan izanen du eragina? Zein dira eta nola elkartuko dira? Zein zerbitzu elkartuko dira kasu bakoitzean?

Zerbitzuak mankomunitateen bidez elkartu diren kasuetan, orain artekoetan, langileak legeria indardunaren arabera kontratatu direla uste du gobernuak?

Iruñean, 2002ko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: Jose M^a Aranaz Echarri

Galdera, udal batzuetako idazkarien bitartekotasunari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a ARANAZ ECHARRI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 22an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aranaz Echarri jaunak udal batzuetako idazkarien bitartekotasunari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aranaz Echarri jaunak, Biltzarreko Erregelamendua-

ren 184. artikulua eta hurrengoak xedatuaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Toki Administrazioako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Aspaldiko arazoa da Nafarroan udaletako idazkari askoren bitarteko izaerarena, gobernuak ez baitu arazoa konpontzeko modurik.

Gobernuak pentsatu al du legegintzaldi honetan aurre egitea arazoari?

Zein dira gobernuak abian jarriak dituen edo aztertzen ari den prozedurak egoera honi, bidegabekoa eta arrazoigabea baita, konponbidea emateko?

Iruñean, 2002ko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: Jose M^a Aranaz Echarri

Galdera, Toki Administrazioako Departamentuko Hiru Urteko Planaren barnean emandako presako dirulaguntzei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a ARANAZ ECHARRI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 22an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aranaz Echarri jaunak Toki Administrazioako Departamentuko Hiru Urteko Planaren barnean emandako presako dirulaguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Ara-

naz Echarri jaunak, Biltzarreko Erregelamendua-
ren 184. artikulua eta hurrengoak xedatuaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Toki Administrazioako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Hiru urteko planean ezarritako irizpideak betetzeko onartutako lanez gain, badago aukera dirulaguntzak emateko presako edo larrialdiko egoera zehatz batzuetan.

Zenbat eskaera aurkeztu zen 2001. urtean eta 2002. urtean, gaur arte, presa edo larrialdiko irizpidearekin?

Zenbati eman zaio erantzuna eta zein zenbaterekin?

Iruñean, 2002ko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: Jose M^a Aranaz Echarri

Galdera, Culturas Millenium Fundazioa udako ikastaroak antolatzeko hautatu izanari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 22an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Culturas Millenium Fundazioa udako ikastaroak antolatzeko hautatu izanari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako

Gobernuko Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak idatziz erantzun dezan.

Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak maiatzaren 31n emaniko 121/2001 Ebazpenaren bidez onetsi zen Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren eta Fundación Culturas Millenium izenekoaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren testua, entitate horren jarduerak gauzatzeko 2001ean eginitako uda ikastaroetan.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Zein izan dira gobernuaren irizpide objektibok udako ikastaroak antolatzeko fundazio hori aukeratzeko?

– Fundazioaren helbidea eta hura zuzentzen duten organoak eta pertsonak.

Iruñean, 2002ko apirilaren 16an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Galdera, aurten eskainiko diren udako ikastaroei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 22an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurten eskainiko diren udako ikastaroei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak idatziz erantzun dezan.

Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak maiatzaren 31n emaniko 121/2001 Ebazpenaren bidez onetsi zen Hezkun-

tza eta Kultura Departamentuaren eta Fundación Culturales Millenium izenekoaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren testua, entitate horren jarduerak gauzatzeko 2001ean eginiko uda ikastaroetan.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Aurreikusirik al dago udako ikastarorik egitea 2002. urtean?

– Baiezkoan, zehaztu zein ikastaro eskainiko diren, noiz egingen diren, bakoitzaren kostua eta

ikastaro bakoitzak eragindako gastuak nork ordainduko dituen.

– Aurreikusirik al dago ikastaro horien inguruko sustapen edo informazio kanpainarik? Hala bada, zehaztu kanpaina hori.

Iruñean, 2002ko apirilaren 16an.

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Galdera, sare publikoko eta hitzartuko irakasleen ordutegiei buruzkoa

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak sare publikoko eta hitzartuko irakasleen ordutegiei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu Hezkuntza eta Kultura Departamentuak idatziz erantzun ditzan.

Legegintzaldi honetan behin baino gehiagotan hitz egin da Biltzarrean ikastetxe publikoetako irakasleen eta ikastetxe itunduetakoen artean dagoen aldeaz, bai ekonomian bai ordutegian.

Gai honen inguruan, gure taldeak hauxe jakin nahiko luke:

1. Gaur egun zenbat lan ordu bete behar izaten dituzte astean ikastetxe publikoetako irakasleek eta ikastetxe itunduetakoek?

2. Aurreikusirik al du Hezkuntza Departamentuak neurriren bat ezartzea ikastetxe publikoetako irakasleen eta ikastetxe itunduetakoen ordutegiak parekatzeko?

3. Baiezkoan, zein dira neurri horiek eta zein epetan pentsatu du ezartzea?

Iruñean, 2002ko apirilaren 18an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan A mailako lanpostuak betetzeko “merezimendu-lehiaketa” erabiltzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 22an egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan A mailako lanpostuak betetzeko “merezimendu-lehiaketa” erabiltzeari buruz egindako galderaren biderape-

na onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Azken hiru urteotan, zenbat aldiz erabili da langileak hautatu eta lanpostuak betetzeko merezimenduen lehiaketaren salbuespeneko sistema osasun arloko sendagile espezialisten A mailako

lanpostuetarako, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berriazkoa arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 31.1 artikuluan aurreikusi bezala? Osasun Zerbitzuak aurreikusirik al du 2002. urtean sistema hura erabiltzea?

Erabili baldin bada kontratatutakoen eta egun betetzen duten lanpostuen zerrenda igortzeko eskatzen dugu.

Iruñean, 2002ko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Gizarte Segurantzako Osasun Ikerketetarako Funtseko beka emateari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 22an egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Gizarte Segurantzako Osasun Ikerketetarako Funtseko beka emateari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

1. Gizarte Segurantzaren Osasun Ikerketetarako Funtseko beketatik zenbat eman zaie Osasunbideko langileei 1996, 1997, 1998, 1999, 2000, 2001 eta 2002. urteetan? Proiektuen zerrenda nahi dugu, bakoitzaren ikertzaile buruen izena eta lantokia adierazirik.

2. Azken hiru urteotan, aurtengoa barne, Osasunbideko profesionalek zientziaren arloan argitaratutakoen zerrenda egitea nahi dugu, aldizkari nazionaletan eta atzerrikoetan, garrantziaren arabera.

3. Osasunbideko profesionalek azken hiru urteotan aurkeztutako doktorego tesien kopurua.

4. Osasun Departamentuko Ikerketa Biomedikoaren Unitatearen lan ildoak zein diren, zenbat langile eta beka aritzen diren unitate horretan eta bertan eginiko lanen ondorioz aldizkari nazionaletan eta atzerrikoetan argitaraturiko lanak, garrantziaren arabera.

Iruñean, 2002ko apirilaren 19an.

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko irakaskuntza-unitateek programaturiko ikastaroei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 22an egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko irakaskuntza-unitateek programaturiko ikastaroei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres

Miranda andreak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan.

1. Zein izan dira Osasunbideko ospitaleetako irakaskuntza unitateek programaturiko ikastarok? Ikastaro bakoitzean zenbatek eskatu du eta zenbatek hartu du parte? Halaber, ikastaro horien kostua irakaskuntza unitatez unitate zehazturik.

2. Osasun Departamentuaren Irakaskuntza Atalak antolaturiko ikastaroetan zein izan da ikastaro bakoitza eskatu dutenen kopurua eta partaideena, titulazioen, lanbide kategorien eta jatorrizko zentroaren arabera zehazturik. Halaber, ikastaro bakoitzaren kostua jakin nahi dugu.

Iruñean, 2002ko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Sanduzelain eta Arrotxapean eraikitako BOEen adjudikaziorako aurkezturiko eskariei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak Sanduzelain eta Arrotxapean eraikitako BOEen adjudikaziorako aurkezturiko eskariei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko azaroaren 12ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak galdera egin du Sanduzelain eta Arrotxapean eraikitako BOEen adjudikaziorako aurkezturiko eskariei buruz. Hona hemen

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Vinsa enpresari kontsulta egin ondoren, adierazi digute etxebizitza lortzeko 5.180 eskariei buruzko azterlana abenduaren akaberan edo urtarriean egonen dela amaituta.

2. Puntuazio berdinketa horiek dirusarrera txikiak dituztenen alde ebazten ohi dira.

3. Foru Komunitateko administrazioak eta udal administrazioak, Espainiako estatuan, nahi ditugun etxebizitza kopuruak eta motak lortzeko merkaturiko egoera egokiena bultzatzen saiatu behar dira. Ondorio horiei begira, lankidetzak hiru tresna ditu:

- Behar diren etxebizitza berriak jasateko behar adinako lurzoru egokiaren hirigintza grape-na sustatzea, gehien bat udalen esku dagoen lana.

- Etxebizitza horiek etekina lortzeko moduan produzitzeko kostua hartuko duen gehieneko prezioa ezartzea, bai eta etxebizitzari laguntzeko funts berariazkoak ere, Parlamentuaren zeregina.

- Laguntzetarako arau esparru bat, produkzioa sustatu eta erosteari sostengua emateko behar bezain egokia, garatzea eta aurreko bi zereginak bultzatzea, Nafarroako Gobernuaren eginbearra.

Galderaren mamira jo eta esan beharra dago aldi honetan egoera ez dela berdina Nafarroako toki guztietan, zenbait herritan, Tuteran, adibidez, araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzaren sustapen batzuetan eskarien kopurua etxebizitzena baino txikiagoa izan da, eta eman gabe ere gelditu dira, baina beste batzuetan, Iruñean eta Iruñerrian, kasu, egoera desberdina da.

Halere, edozein deialdi publikotan bezala, beharrezkoa da eskarien hautaketa egitea zenbait parametro erabiliz. Premia larriak eragindako eskariei arreta handiagoa jarri behar zaie horren norabidea, irispene eta eraginkortasuna ongi neurtzeko. Gai horretan oso datu desberdinak agertzen zaizkigu, adierazitakoren erakusgarri. Adibidez, Iruñerrian 917 etxebizitza eraikitzeke lurzoru publikoaren adjudikaziorako 1999an eginitako lehiaketan hauexek izan ziren, besteak beste: araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzetarako bi sustapen, 49 etxebizitzetarako beste bat, Berriozarren, Construcciones Sanzol enpresak sustaturik eta 56 etxebizitzetarako beste bat, Mendillorri, Construcciones A.C.R. enpresaren eskutik. Etxebizitzaren prezioak eta ezaugarriak antzekoak baziren ere, Berriozarko sustapenak 520 eskari baizik ez zuen jaso, hau da, 10,6 eskatzaile etxebizitza bakoitzeko, baina Mendillorrikoak 4.525 eskari erakarri zituen, hau da, 80 eskatzaile etxebizitza bakoitzeko.

Beste adibide nabarmen bat da etxebizitza eskatzaileen kopurua Nafarroako Kutxak Barañainen egin zuen sustapenerako, iaz, 13.000

eskari jaso baitziren; VINSAk hurrengo urtean egindakoan, berriz, eskarien kopurua 5.180ra jaitsi zen. Sustapen horretan 76 etxebizitza zeuden, eta VINSAk berriki eginikoan 74.

4. Aipatutako epean babes ofizialeko 844 etxebizitza kalifikatu dira behin-behinekoz, 2000ko urtarriletik urrira bitarte kalifikatu ziren 777 etxebizitzaren aldean. Araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan 344tik 559ra pasatu da, hau da, % 60ko igoera gertatu da.

2001-2004 urteetarako Etxebizitza planean ezarritako helburua zen 2001ean babes ofizialeko 1.850 etxebizitza kalifikatzea behin-behinekoz.

5. Viedma jaunak premia larrikotzat jotzen dituen 14.219 horiek bitan banatzen dira: batetik, 4.037 etxebizitza aldatzeko eskariak dira, hau da, etxebizitza, jabetzan edo errentan, badutenenak, eta bestetik, 10.182 lehendabiziko etxebizitza eskuratzeko eskariak dira; planean azaltzen den bezala, aintzat hartuko dira lehendabiziko etxebizitza eskuratzeko 10.182 eskariak eta etxebizitza aldatzeko 2.479 eskari. Bi eskatzaile multzo horietan badira gutxi batzuk etxebizitza eskuratzeko baliabide nahikoa dutenak eta beraz, etxebizitza eskuratzeko babes publikoa behar duen sektorearen zenbakiak honela gelditzen dira: 8.013, lehendabiziko etxebizitza eskatzen dutenena, eta 2.014, aldatzea eskatzen dutenena, hau da, tarte babesgarria 10.027 eskarik osatzen dute, planak aipatzen duen etxebizitza kopurutik, 10.000, alegia, nahiko hurbil dagoena. Laburturik, alde horretan dauden 4.219 etxebizitza eskarien kasuan babes publikoa ez da beharrezkoa.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 181. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 28an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

Galdera, espetxeen arloko politikaren funtsezko irizpideak ezarriko dituen eztabaida publikoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Batasuna Parlamentuko Taldeak espetxeen arloko politikaren funtsezko irizpideak ezarriko dituen eztabaida publikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko azaroaren 19ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Batasuna Parlamentuko Taldeak galdera egin du Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua, espetxeen arloko politikaren funtsezko irizpideak ezarriko dituen eztabaida publikoa egitera premiatzeko 2001eko urriaren 10ean hartutako erabakiari buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoari jarraikiz.

1. Noiz egin asmo du Nafarroako Gobernuak Nafarroan espetxe-politika bat gidatu behar duten oinarritzko irizpideei buruzko eztabaida publiko hori?

Nafarroako Gobernuak ez du Nafarroan egin beharreko espetxe-politikari buruzko inolako eztabaida publikorik egin ez eta sustatzeko asmorik, ez duelako eskumenik arlo horretan.

2. Zer departamentu arduratuko da/dira eztabaida hori taxutu eta egiteaz?

Nor aurreikusten da parte hartu duela eztabaida horretan?

Noizko aurreikusten da hasiko dela eztabaida? Noizko eztabaidaren ondorioak?

Lehendabiziko erantzunarekin bat, ez da inongo departamentu arduraturako eztabaida hori taxutu eta egiteaz, ez dago aurreikusirik inork parte hartzea eta ez da finkatu egunik ez eztabaidarako ez eta ondorioak plazaratzeko ere.

Nolanahi ere eta kontuan harturik galdera Nafarroako Parlamentuak hartutako erabaki batean oinarriturik dagoela, erantzuna osatuko du legezkotasun eta gaitasun irizpideen arabera,

abaguneaz baliatzen den beste erabaki lege-oinarririk gabekorik hartu ez dadin, ahal dela.

Espainiako Konstituzioaren 149.1.6gn. artikulua eskumen erabatekoa ematen dio Estatuari espetxe gaietako legediaren arloan, eta eskumen horretaz baliatuz aldarrikatu dira irailaren 26ko 1/1979 Lege organikoa (Espetxe gaietako legezko orokorra) eta Espetxe gaietako Erregelamendua onartzen duen otsailaren 9ko 190/1996 Errege Dekretua. Eta ez da ahaztu behar arau horiek eta legedi penala eta prozesal penala elkarren osagarri direla, azken horiek ere estatuaren erabateko eskumena izanik, Konstituzioaren artikulua horren arabera.

Eskumenen banaketa horrekin bat, LORAFNA-ren 58.1.a) artikulua espetxeen arloko eskumena ezagutzen dio Nafarroari estatuko legedia betetzeari dagokionez, eta horixe da beraz espetxe arloko zerbitzuen eskualdaketa jaso duen erkidegoak -oraingoz bakarrak-, Katalunia, alegia, dituen eskumenen irispena, handiagoa izaterik ez baita.

Espetxe politikaren norabidea "gizarteratzea" laguntzea izatea, mozioak zioen bezala, garrantzitsua ez ezik aipatutako lege organikoaren (1. artikulua) aurreneko xedea ere bada, aipatutako erregelamendua ere jasotzen duenez (2. artikulua).

Bestalde, jakina da Nafarroan espetxeko lehen eta bigarren graduan dauden presoek kopurua dela Espainiako txikienetakoa, hirugarren graduan daudenekin alderaturik.

Azkenik, Nafarroako Gobernuak erkidego honetako presoekiko duen kezka dagokionez, gogoratu beharra daukat Nafarroan ohikoa izan den moduan, Konstituzioaren arabera egin daitezkeen eskualdaketak gauzatu ez badira ere, Nafarroako Gobernuak laguntza handi samarra ematen duela presoentzako mantenu, osasun laguntza eta hezkuntza-prestakuntzarako langileekin, ohiko gastuekin eta inbertsio gastuekin ere, eta horietatik dira hain zuzen giza talde horren gizarteratze eta duintasuna berreskuratzen eragina duten alderdiak.

Egia da halaber, egungo espetxea, 1901ekoa baita, ez dela egokia aipatutako legeek bultzatzen dituen espetxe beharretarako. Horregatik, aurrerantzean ere lanean ariko gara Estatuko adminis-

trazioaren batera, 2000ko irailaren 14an Nafarroako Parlamentuak baimendu zuen lankidetzaren hitzarmenean ezarritako moduan, Nafarroan espetze moderno eta gaurkotua egon dadin. Hori lortu ondoren aztertuko da zein eskualdaketa eta nola egin daitezkeen, baina, berriz diot, sekula ez dute eraginik izanen espetze politikan.

Jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko azaroaren 28an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurera Induráin

Galdera, Compañía Tecnológica de Corella-Construcción, SA enpresari emaniko laguntzei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Batasuna Parlamentuko Taldeak Compañía Tecnológica de Corella-Construcción, SA enpresari emaniko laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko azaroaren 12ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna

Batasuna Parlamentuko Taldeak galdera egin du Compañía Tecnológica de Corella-Construcción, S.A. enpresari emaniko laguntzei buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

Industria Sustatzeko Zerbitzuak, Industria zuzendari nagusiak abenduaren 9an emaniko 1431/1998 Ebazpenaren bidez emandako laguntzei dagokienez, enpresa horri 351.067.750 pezetako inbertsioko dirulaguntza eman zitzaion eta enpleguko beste dirulaguntza bat, 14 milioi pezetakoa, 28 lanpostu mugagabe sortzeagatik.

Inbertsioko dirulaguntza bi urtekotan ordaindu zen: lehena, 300.000.000 pezetakoa, 1998ko ekitaldiaren kargura, eta bigarrena 51.067.750 pezetakoa, 1999ko ekitaldiaren kargura.

Enpleguko dirulaguntza bi urtekotan ordaindu zen: lehena, 13.500.000 pezetakoa, 1999ko ekitaldiaren kargura, eta bigarrena, 500.000 pezetakoa, 2000ko ekitaldiaren kargura.

Enpresak egindako inbertsioek 1.783.275.133 pezeta egiten zuten eta benetan gauzatutakoek eta laguntza jaso zezaketenek 1.755.338.754 pezeta egiten zuten.

Dirulaguntza horiek industria arloko politikari eta inbertsioa eta enplegua sustatzeko neurri koiunturalei buruzko Araua (1982) eta Inbertsio eta enplegurako finantza laguntzei buruzko Erregelamendua (1/1982 Foru Dekretua) kontuan hartuta eman ziren.

Berriztapen eta Teknologia Zerbitzuak, Industria zuzendari nagusiak 2000ko irailaren 5ean emaniko Ebazpenaren bidez emandako laguntzei dagokienez, berriz, 750.000 pezetako dirulaguntza eman zen 3 milioiko aurrekontua zuen kalitatea egiaztatzeko proiektu baterako. Aipatutako laguntza, Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak martxoaren 16an kalitatea, diseinua eta lehiakortasuna hobetzeko laguntzak deitzeko emaniko 28/2000 Foru Aginduaren babesean esleitua, ez da oraindik ordaindu.

Gainerakoan, enpresak 2000ko abenduaren 1ean aurkeztu zuen beste eskaera bat, data horretatik aurrera gauzatu beharreko inbertsio plan baterako laguntzak eskuratu ahal izateko. Planaren helburua ekoizpen ahalmena areagotzea da eta arau indardunen arabera tramitatuko da.

Enpresak ez du mozkinik izan jardunaren lehendabiziko urteetan eta horrexegatik ez da Sozietateen gaineko zergarako hobari edo kenkarien onuradun izan.

Azkenik, Nafarroako Gobernuak ez daki Compañía Corella Construcción, S.A. Nafarroako Ubi-dearen tarteetakoren baten adjudikazio hartzaileen hornitzailea den.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko abenduaren 5ean.

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna

Batasuna Parlamentuko Taldeak galdera egin du Compañía Tecnológica de Corella-Construcción, S.A. enpresari emaniko laguntzei buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

1. Zer dirulaguntza edo bestelako laguntza eman dizkio enpresa horri Nafarroako Gobernuak 1997tik hona? Jasotako diru kopurua zehaztuta nahi da, eta horiek jasotzeko arrazoiak adierazita.

Datuak ikusirik, adierazi behar dugu Compañía Tecnológica de Corella-Construcción, S.A. enpresak ez duela Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren inolako diru laguntzarik jaso 1997tik.

3. Ba al daki Nafarroako Gobernuak enpresa horrek Nafarroako Ubideko zati batzuen adjudikazioa hartu duten enpresa batzuk hornitzen ote dituen?

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ez du informazio berariazkorik Compañía Tecnológica de Corella-Construcción, S.A. enpresak Nafarroako Ubidearen enpresa adjudikazio-hartzaileen hornitzailea ote den jakiteko.

Adierazi behar du, halaber, Nafarroako Ubidearen eraikuntza lanak osotara kudeatzen duela estatuko Canal de Navarra, S.A. enpresa publikoak, eta Nafarroako Gobernuak ez duela eskumenik lan horietan egiten diren azpikontratazio edo horniduren jarraipena egiteko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 22an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, irrati-difusioko emisoren adjudikazioen egungo titularrei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak irrati-difusioko emisoren adjudikazioen egungo titularrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko azaroaren 12ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA-EAJ/PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera bat egin du uztailearen 15eko 2343/1998 Foru Aginduaren bidez adjudikaturiko irrati-difusioko emisoreei buruz. Hona hemen

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

1. Gure erkidegoko bi prozesu horietan, nortzuk dira gaur egun Nafarroako Gobernuak eginitako adjudikazioen titularrak?

Egungo titularrak hauexek dira:

- | | |
|-----------------|--|
| • Altsasu 87.8 | Información por Ondas,S.A. |
| • Elizondo 91.3 | Información por Ondas, S.A. |
| • Lizarra 93.5 | Luis del Olmo Marote |
| • Lesaka 100.9 | Xorroxin Irratia. |
| • Iruña 89.3 | Radio Blanca, S.A. |
| • Iruña 99.2 | Compañía Navarra de Radio-difusión, S.A. |
| • Iruña, 105.1 | Medios de Comunicación 21, S.L. |
| • Iruña, 98.3 | Universidad de Navarra |
| • Azkoien 104.7 | Radio Popular, S.A. |

- Tafalla 93.9 Sociedad Española de Radio-difusión, S.A.
- Tuter 95.9 Ribera Navarra, S.L.
- Tuter 103.1 Información por Ondas, S.A.

2. Zer prozedura jarraitu dira titular-aldaketak izan diren kasu guztietan? Jarraitu al dira oinarrietan ezarritako prozedurak?

Aipatutako emisoretatik bakar batean ere berez ez da emakidaren titular-aldaketarik izan.

3. Zer enpresek zuten aurreikusita euskarazko programak izatea?

Frekuentzia modulatu uhin metrikoen bidezko soinu irrati-difusioaren zerbitzua kudeatzeko emakida administratiboen lehiaketaren adjudikazioa 1998an hartu zutenen artean, haien programazioan euskarazko saioak aurreikusirik zituztenak hauexek dira:

- Medios de Comunicación 21
- Nafarroako Unibertsitatea
- Luis del Olmo
- Xorroxin Irratia

4. Gaur egun, programazioan, zenbatek betetzen dituzte aurreikusi zituztenak?

1997ko lehiaketaren emisore guztiak ari dira proiektu teknikoaren baimena tramitatzen Zientzia eta Teknologia Ministerioan, eta horrexegatik ez da orain arte egin emakida horien behin betiko adjudikazioa. Behin betiko adjudikaziotik aurrera, orduantxe egonen dira lehiaketa horien oinarrietan ezarritako eskubide eta betebeharren menpe.

5. Zenbat puntu lortu zituen enpresa horietako bakoitzak euskarazko emisioengatik?

Lehen aipatutako proposamenek euskarazko programazioa baloratzeko atalean jaso zituzten puntuazioak hauexek dira:

- Medios de Comunicación 21 1,70 puntu
- Nafarroako Unibertsitatea 2 puntu

- Luis del Olmo 1,70 puntu
- Xorroxin Irratia 10 puntu

6. Adjudikazioan, zer alde izan zen, puntuetan, prozesu haietan adjudikazio-hartzaile izan ziren enpresen eta adjudikaziorik lortzeko "zortetik" izan ez zuen lehenbiziko enpresaren artean?

Galdera egiteko modua ez da egokia, gure ustez. Lehiaketetan ez da "zorte" konturik izaten, lehiatzaileak eta puntuazioak baizik, eta puntu gehien eskuratzen dutenek edo duenak hartzen du edo dute adjudikazioa.

7. Aurkeztutako eskaintza bakoitzean ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko, zer kontrol erabiltzen ditu gobernuak, zer bitarteko?

Frekuentzia modulatu emisoreen emakidarako araubidea ezartzen duten 37/90 eta 336/97 foru dekretuen arabera, emakida hartzaileek urtero aurkezten diote Nafarroako Gobernuari hurrengo urterako programazio plana, ordutegiari, ekoizpen propioari eta hizkuntzari buruzko informazioarekin. Halaber, ekitaldi bakoitzeko balantzea, emaitzen kontua, etekinen banaketa eta azalpen txostena aurkezten dute.

Orain arte Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Telekomunikazio Zerbitzua izan da informazioa eta emakidaren baldintzak orokorrean betetzen diren ala ez egiaztatu izan duena. Kontuan hartu behar da, halere, Nafarroako ikus-entzunezkoen jardura arautu eta Nafarroako ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea onetsiz geroztik organo horri dagokiola ikus-entzunezkoen hedabideen gaineko ikuskaritza eta kontrola.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko azaroaren 30ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Felipe Borboikoak Nafarroara eginiko bisitaren kostu ekonomikoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Batasuna Parlamentuko Taldeak Felipe Borboikoak Nafarroara eginiko bisitaren kostu ekonomikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko azaroaren 19ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Batasuna Parlamentuko Taldeak galdera bat egin du Felipe Borboikoak, Vianako Printzeak Nafarroara eginiko bisitak Foru Ogasunari ekarri dion kostu ekonomikoari buruz eta kostu hori Batasuna Taldeak Estatuarentzako kupoa deitzen duenari kentzeko aukerari buruz. Hona hemen, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 145. artikuluari eta hurrengoek jarraikiz, Lehendakaria, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Felipe Borboikoak, Vianako Printzeak Nafarroara egin duen bisitak 19.869.791 pezetako kostua izan du.

Hona kostua zehaztuta:

Ostalaritza: 11.932.398 pezeta, Iruñean eskainitako afari soziala, Iruñean unibertsitateko ikasleei eskainitakoa, Tuteran toki entitateetako ordezkariari eskainitako bazkaria, beste gonbidatu batzuentzat aurreikusiriko bazkari eta afariak, segizioko kideentzako gelak alokatzea, aperitibok eta kafeak zenbait tokitan.

Ekitaldiak antolatzekeo gastuak: 7.226.897 pezeta, gastu hauengatik: megafonia, apaingarri loreduak, dekorazioa, paperak, autobusak eta bestelako ibilgailuak alokatzea, karpak jartzea Tafallan eta Bertizen, oparitzeko oroigarriak, pres-talanteko bidaia eta mezularitzako gastuak.

Komunikabideen inguruko gastuak: 710.496 pezeta, prentsa aretoa montatzeko.

Segizioko kideen ostalaritzako gastuak eta segurtasuneko nola segizioko langileen lojamentu gastuak ez dira Nafarroako aurrekontu orokorren kontura ordaindu.

Gastua Protokolo Ataleko "Zenbait gastu" izeneko kontusailaren kargura egin da, "Kreditu globala. 8/1988 Foru Legearen 39. artikulua" kontusailetik transferentzia egin ondoren.

2. Gobernuak ez du asmorik gastu hori erantzuna egin duenak Estatuarentzako kupoa deitzen duenari osorik egozteko. Estatuarentzako kupoa izeneko kontzepturik ez dago gure hitzarmen ekonomikoan, Estatuaren karga orokorretarako ekarpenarena baizik.

Bidaia hori ageri ez denez Estatuko aurrekontuetan, Nafarroak ez du ekarpenik egin behar karga horretarako eta beraz, ez da ezer deskontatu behar. Horregatik, gastuak Foru Komunitateak ordaindu ditu, bisitariaren anfitrioi den aldetik.

Jakinarazi dizut, behar diren ondorioz izan ditzan.

Iruñean, 2001eko abenduaren 5ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

FELIPE BORBOIKOAK, ASTURIAS ETA VIANAKO PRINTZEAK NAFARROARA
EGINIKO BISITAK EKARRITAKO KOSTU EKONOMIKOA (2001eko azaroaren 6tik 9ra).

	Aurreikusitakoa	Behin betikoa
390 pertsonari Iruñean eskainitako afari soziala	4.000.000	3.909.566
Unibertsitariei Iruñean eskainitako afaria	1.500.000	1.347.612
Toki entitateetako ordezkarietara Tuteran eskainitako bazkaria	2.500.000	2.300.000
Bestelako bazkari eta afariak, 150 gonbidaturi eskainitakoak	2.250.000	2.120.083
Segizioko 50 pertsonen ostatu gastuak	1.500.000	
Segurtasuneko nola segizioko langilerentzako ostatu gastuak	1.000.000	
Segiziorako logelak alokatzea	1.500.000	755.137
Zenbait tokitan zerbitzatutako aperitiboak eta kafeak	2.250.000	1.500.000
Megafonia gastuak, apaingarri lorehunak, dekorazioa eta paperak	3.000.000	3.131.459
Autobusak eta bestelako ibilgailuak alokatzea	700.000	208.958
Tafallan eta Bertizen karpak jartzea	3.000.000	2.485.880
Oparitzeko oroigarriak		593.310
Prestalantetako bidaia		471.485
Mezularitzako gastuak, gonbidapenak bidaltzeko	900.000	335.805
Reino de Navarra hoteleko prentsa-aretoa jartzea	900.000	710.496
GUZTIRA	25.000.000	19.869.791

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 39,07 euro Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 » Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--